2. Si el traslado de domicilio se efectuase a lugar correspondiente a la circunscripción del Registro Mercantil en que el sujeto hubiera estado anteriormente inscrito, bastará una certificación de las inscripciones efectuadas con posterioridad a la transcripción prevenida por el apartado anterior. El Registrador Mercantil correspondiente al nuevo domicilio hará constar por nota que quedan de nuevo en vigor las inscripciones practicadas y trasladará a continuación las nuevas según resulte de la certificación presentada.

3. La certificación a que se refiere el número 1 de este artículo tendrá una vigencia de tres meses desde su

lekualdaketa-erabakia egiaztatzen duen agiria edo administrazio-organoaren eskabidea; eskabide horrek izan behar ditu behar bezala legitimatutako sinadurak. Behin ziurtagiria egindakoa, jatorrizko erregistratzaileak halaxe agerraraziko du eskaera egiteko erabili zen agirian, eta eginbidea jarriko du azken idazkunaren ostean; horrek ekarriko du Erregistroa ixtea. Ziurtagirian esanbidez agerrarazi behar da Erregistroan eginbide hori gauzatu dela.

Erregistratzaile jasotzaileak hitzez hitz kopiatuko du ziurtagiriaren edukia orri berrian, inskripzio bananduan egoitzaren aldaketa agerrarazita. Jarraian, erregistratzaile jasotzaileak ofizioz komunikatuko dio jatorrizkoari aurreko inskripzioak egin direla, zein orri, folio eta liburutan egin diren zehaztuta. azken horrek aipamen-oharra egingo du, erregistro-datu horiek adierazteko.

2. Subjektua Merkataritzako zein Erregistrotan inskribatuta egon eta horren mugabarruko tokiren batera aldatzen bada egoitza, nahikoa izango da aurreko idatz-zatiak aipatu kopiaren osteko inskripzioen ziurtagiria. Egoitza berria non izan eta bertako merkataritzako erregistratzaileak ohar bidez agerraraziko du eginiko inskripzioak berriro jartzen direla indarrean, eta berriak kopiatuko ditu, aurkeztutako ziurtagiriak ondorioztatzen duenaren arabera.

3. Artikulu honetako 1. zenbakiak aipatu ziurtagiriak hiru hilabeteko indarraldia izango du, egiten denetik zenbatzen

expedición, transcurridos los cuales deberá solicitarse una nueva certificación. El cierre del Registro como consecuencia de la expedición de la certificación tendrá una vigencia de seis meses, transcurridos los cuales sin que se hubiese recibido el oficio del Registrador de destino acreditativo de haberse practicado la inscripción en dicho Registro, el Registrador de origen por medio de nueva diligencia procederá de oficio a la reapertura del Registro.

Artículo 20. *Cambio de domicilio al extranjero*

1. Si el cambio de domicilio se efectuase al extranjero, en los supuestos previstos por las Leyes, se estará a lo dispuesto en los Convenios internacionales vigentes en España y a las normas europeas que resulten de aplicación. En tales supuestos, el Registrador competente en razón del domicilio de la sociedad que se traslada certificará el cumplimiento de los actos y trámites que han de realizarse por la entidad antes del traslado, y no cancelará la hoja de la sociedad hasta que reciba una comunicación del tribunal, notario u autoridad competente del nuevo domicilio acreditativa de la inscripción de la sociedad. Recibida ésta, cancelará la hoja de la sociedad y extenderá nota de referencia expresiva de los nuevos datos registrales.

2. Si en el Convenio se previese el mantenimiento de la nacionalidad española de la sociedad, las inscripciones se trasladarán, de conformidad con lo dispuesto en el artículo anterior, a la hoja que se le abra en el Registro Mercantil Central, en la que se practicarán en lo sucesivo los asientos correspondientes a dicha sociedad.

hasita, eta, epe hori igarotakoan, beste ziurtagiri bat eskatu behar da. Ziurtagiria egitearen ondorioz Erregistroa sei hilabeterako itxiko da, eta epe hori igarotakoan ez bada hartu erregistratzaile jasotzaileak bidalitako ofizioa Erregistro horretan inskripzioa egin dela egiaztatzeko, jatorrizko erregistratzaileak beste eginbide bat gauzatu eta ofizios irekiko du berriro Erregistroa.

20. artikulua. *Egoitza atzerrira aldatzea*

1. Legeek ezarritako kasuetan egoitza atzerrira aldatzen bada, Espainian indarrean dauden nazioarteko hitzarmenek eta aplikatzeko moduko arau europarrek xedatutakoa bete behar da. Halakoetan, lekualdatzen den sozietatearen egoitzako merkataritzako erregistratzaileak ziurtatuko du sozietateak bete dituela lekualdaketaren aurretik gauzatu beharreko egintzak eta bete beharreko izapideak, eta egoitza berriko auzitegiak, notarioak edo agintari eskudunak komunikazioa bidali arte sozietatea inskribatu dela egiaztatzeko, erregistratzaileak ez du ezereztuko sozietatearen orria. Komunikazioa jasotakoan, sozietatearen orria ezereztu eta aipamen-oharra egingo du, erregistro-datu berriak aipatuz.

2. Hitzarmenean ezarri bada sozietate horrek Espainiako naziotasunari eutsiko diola, orria irekiko zaio Merkataritzako Erregistro Nagusian, eta, aurreko artikulua xedatutakoaren arabera, bertara lekualdatuko dira inskripzioak; hortik aurrera, sozietate horri dagozkion idazkunak orri horretan jasoko dira.

3. En la hoja abierta a la sociedad en el Registro correspondiente al antiguo domicilio, se extenderá la diligencia a que se refiere el apartado primero del artículo anterior.

4. Si el traslado fuera de una sociedad anónima europea domiciliada en España a otro estado miembro de la Unión Europea, el Registrador del domicilio social originario certificará el cumplimiento de los actos y trámites que han de realizarse por la entidad antes del traslado y extenderá en la hoja abierta a la entidad la diligencia a que se refiere el apartado primero del artículo anterior.

Cuando la sociedad anónima europea se haya inscrito en el Registro del nuevo domicilio, el Registrador español del anterior domicilio cancelará la hoja de la sociedad después de recibirla correspondiente notificación en la que la autoridad correspondiente del nuevo domicilio le dé cuenta de aquella inscripción. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 315 de la Ley de Sociedades Anónimas y 160.3 de este Reglamento.

Artículo 21. *Apertura al público del Registro*

El Registro Mercantil estará abierto al público todos los días hábiles, desde las nueve a las catorce y desde las dieciséis a las dieciocho horas, excepto los sábados, en los que sólo se mantendrá el horario de mañana.

Artículo 22. *Sello*

En los documentos que firmen los Registradores, fuera de los libros del Registro, se estamparía un sello con el Escudo de España, la indicación de la circunscripción territorial y el nombre y apellidos del Registrador.

CAPÍTULO II De los libros del Registro

3. Lehengo egoitzako Erregistroan sozietateari ireki zitzaion orrian, aurreko artikulua lehengo paragrafoak aipatu eginbidea jarriko da.

4. Egoitza Espainian duen sozietate anonimo europarrak Batasuneko beste estatu kide batera aldatzen badu berori, jatorrizko egoitzako erregistratzaileak ziurtatuko du lekualdaketa aurretik gauzatu beharreko egintzak eta bete beharreko izapideak bete direla, eta burutuko du aurreko artikulua lehengo paragrafoak aipatu eginbidea, erakundeari zabalduko orrian.

Sozietate anonimo europarra egoitza berriko Erregistroan inskribatu denean, aurreko egoitzako erregistratzaile espainiarrak sozietatearen orria ezereztuko du, egoitza berriko agintari eskudunak inskripzio horren inguruan egindako jakinarazpena jaso eta gero. Hori guztia gauzatu da, Sozietate Anonimoen Legearen 315. artikuluan eta erregelamendu honen 160.3 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

21. artikulua. *Erregistroa zabalik egotea jendearentzat*

Erregistroa zabalik egongo da egun baliodun guztietan, bederatzietatik ordu biak arte eta lauretatik seiak arte; larunbatetan, goizez bakarrik zabalduko da.

22. artikulua. *Zigilua*

Erregistratzaileek Erregistroko liburuetatik at sinatzen dituzten agirietan zigilua jarriko da, Espainiako armariarekin, eta lurralde-mugabarrua nahiz erregistratzailearen izen-abizenak aipatuz.

II. KAPITULUA Erregistroko

Artículo 23. Libros

1. En los Registros Mercantiles se llevarán los siguientes libros:
 - a) Libro de inscripciones y su Diario de presentación.
 - b) Libro de legalizaciones y su Diario de presentación.
 - c) Libro de Depósito de cuentas y su Diario de presentación.
 - d) Libro de nombramiento de expertos independientes y de auditores y su Diario de presentación.
 - e) Índices.
 - f) Inventario.
2. Cuando las necesidades del servicio lo aconsejen, la Dirección General de los Registros y del Notariado podrá autorizar la apertura de más de un Libro Diario de cada una de las operaciones relacionadas en los epígrafes a), b), c) y d) del apartado anterior.

3. Los Registradores podrán llevar también los libros y cuadernos auxiliares que juzguen conveniente para la adecuada gestión del Registro.

4. Los libros a que se refieren las letras b), c), d), y e) del apartado 1, así como los libros y cuadernos auxiliares del apartado 3, serán de hojas móviles y podrán elaborarse por procedimientos informáticos o sustituirse por ficheros manuales o archivos informáticos, en cuyo caso deberán recogerse en los asientos todas las circunstancias exigidas por la Ley y este Reglamento.

Artículo 24. Formalidades comunes de los libros

1. Los libros del Registro Mercantil serán uniformes para todos los Registros y se numerarán, en cada uno de ellos, por

liburuak

23. artikulua. Liburuak

1. Merkataritzako erregistroetan hurrengo liburuak eraman behar dira:
 - a) Inskripzio-liburua eta horren aurkezte-egunkaria.
 - b) Legeztatze-liburua eta horren aurkezte-egunkaria.
 - c) Kontu-gordailuen liburua eta horren aurkezte-egunkaria.
 - d) Aditu independenteen eta auditoreen izendapenari buruzko liburua eta horren aurkezte-egunkaria.
 - e) Aurkibideak.
 - f) Inbentarioa.
2. Zerbitzuaren beharrezan direla-eta komenigarria izanez gero, Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak baimen dezake liburu-egunkari bat baino gehiago irekitzea aurreko paragrafoko a), b), c) eta d) epigrafeetako eragiketa bakoitzari begira.

3. Erregistratzaileek ahalmena dute liburuak eta koaderno laguntzaileak egiteko, Erregistroa behar bezala kudeatzeko komeni denaren arabera.

4. 1. paragrafoko b), c) d) eta e) letrek aipatu liburuak, baita liburu nahiz koaderno laguntzaileak ere orri higigarriez osatuko dira eta prozedura informatikoen bidez egin daitezke, edota eskuzko fi txategi nahiz artxibo informatikoekin ordeztu daitezke; halakoetan, legeak eta erregelamendu honek agindutako inguruabar guztiak jaso behar dira idazkUNETAN.

24. artikulua. Liburu guztiek bete beharreko formalitateak

1. Merkataritzako Erregistroko liburuak eraberekoak izango dira Erregistro guztietan, eta horietako bakoitzean,

orden de antigüedad.

2. La legalización de los libros del Registro se practicará de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento Hipotecario.

Artículo 25. Libro Diario

1. El Diario de presentación a que se refiere la letra a) del artículo 23 podrá llevarse en libros encuadernados y foliados o en libros de hojas móviles. En ambos casos, los folios útiles estarán numerados correlativamente en el ángulo superior derecho.

2. Cada folio del Diario contendrá un margen blanco para extender en él las notas marginales que procedan, separado del resto por dos líneas verticales formando columna en la que se consignará el número del asiento.

Las notas de calificación que deban practicarse al margen del asiento de presentación podrán extenderse en un libro independiente. En ese caso se consignará al margen de aquel asiento la oportuna nota de referencia.

3. En la parte superior de cada folio se imprimirán, en su lugar respectivo, los siguientes epígrafes: notas marginales, número de los asientos y asientos de presentación.

Artículo 26. Libros de inscripciones

1. Los libros de inscripciones estarán compuestos de hojas móviles, numeradas correlativamente en el ángulo superior derecho, consignándose en cada una de ellas el tomo y Registro a que corresponden.

Los asientos que se practiquen en ellos habrán de extenderse a máquina o por procedimientos informáticos, debiendo quedar asegurado, en todo caso, el carácter indeleble de lo escrito.

liburuok antzinatasun-hurrenkeraren arabera zenbatuko dira.

2. Erregistroko liburuak legeztatuko dira Hipoteka Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

25. artikulua. Liburu-egunkaria

1. 23. artikulua a) letrak aipatu aurkezte-egunkaria izan daiteke liburu koadernatu eta folioduna edo orri higigarriekin eraturikoa. Kasu bietan, folio erabilgarriak hurrenez hurren zenbatuko dira goiko angeluan, eskuinaldean.

2. Egunkariaren folio bakoitzak bazter zuria izango du, bertan bazter-ohar egokiak egiteko; bazter hori bi lerro bertikalek bananduko dute, eta horiek osaturiko zutabearen idazkunaren zenbakia agerraraziko da.

Aurkezte-idazkunaren bazterrean egin behar diren kalifikazio-oharrak beste liburu batean jaso daitezke. Halakoetan, aipamen-ohar egokia agerrarazi behar da idazkun horren bazterrean.

3. Folio bakoitzaren goialdean hurrengo epigrafeak inprimatuko dira toki egokian: bazter-oharrak, idazkun zenbakiak eta aurkezte-idazkunak.

26. artikulua. Inskripzio-liburuak

1. Inskripzio-liburuak orri higigarriekin eratuko dira; orriok hurrenez hurren zenbatuko dira goiko angeluan, eskuinaldean, eta orri bakoitzean agerraraziko da zein liburuki eta Erregistrotakoak diren.

Liburu horietako idazkunak makinaz edo prozedura informatikoen bitartez egin behar dira, eta ziurtaturik geratu behar da beti idatzitakoa ezabaezina dela. Bazter-oharrak ere eskuz zein

Las notas marginales podrán practicarse también a mano o mediante estampa.

2. En la parte superior del lomo se incorporará un tejuelo, en el que se expresará el Registro de que se trate y el número del tomo.

3. Los folios se dividirán en tres partes: un espacio lateral destinado a notas marginales; dos líneas verticales, formando columna con separación de dos centímetros, para hacer constar en ella el número de la inscripción o letra de la anotación, así como la naturaleza o clase del acto registrado, y un espacio para extender las inscripciones, anotaciones y cancelaciones.

En la parte superior de cada folio se imprimirán, en su lugar respectivo, los siguientes epígrafes: notas marginales, número de los asientos e inscripciones.

Artículo 27. *Libro de legalizaciones*

El Libro de legalizaciones se llevará mediante la apertura de una hoja para cada empresario en la que se hará constar los datos de presentación de la solicitud en el Libro Diario, la clase de libros legalizados, el número dentro de cada clase, la fecha de legalización y los datos del legajo en que se archive la instancia.

Artículo 28. *Libro de depósito de cuentas*

1. Los folios útiles del Libro de Depósito de cuentas estarán numerados correlativamente en el ángulo superior derecho.

2. Cada folio contendrá diversos espacios en blanco, separados por líneas verticales, en los que se consignará el nombre y los datos registrales del empresario, el tipo de documentos depositados, los datos de presentación

zigiluaren bidez egin daitezke.

2. Bizkarraren goialdean etiketa jarriko da, Erregistroa eta liburuaren zenbakia zehaztuz.

3. Folioek hiru zati izango dituzte: albo batean bazter-oharrak jarriko dira; bi lerro bertikalek bi zentimetroko zutabea osatuko dute, bertan inskripzioaren zenbakia edo idatzoharraren letra nahiz erregistraturiko egintzaren izaera edo mota agerrarazteko; eta beste gune bat, inskripzio, idatzohar eta ezerezteak egiteko.

Folio bakoitzaren goialdean hurrengo epigrafeak inprimatuko dira toki egokian: bazter-oharrak, idazkunen zenbakia eta inskripzioak.

27. artikulua. *Legeztatze-liburua*

Legeztatze-liburua eramateko, enpresaburu bakoitzari orria irekiko zaio, eta bertan agerraraziko da ondokoa: liburu-egunkarian aurkeztutako eskabidearen datuak; legezaturiko liburu-motak, zenbakia mota bakoitzaren barruan; legeztatze-data, eta eskaera-orria zein paper-sortatan artxibatu den eta horren datuak.

28. artikulua. *Kontu-gordailuen liburua*

1. Kontu-gordailuen liburuaren folio erabilgarriak hurrenez hurren zenbatuko dira goiko angeluan, eskuinaldean.

2. Folio bakoitzak hainbat zuriune izango ditu, lerro bertikalez bananduta, eta bertan ondokoa agerraraziko da: enpresaburuaren izena eta erregistro-datuak, gordailutu diren agiri-motak, liburu-egunkarian aurkeztutako

de la solicitud en el Libro Diario, la fecha del depósito y los datos del legajo o carpeta en que se incluyan los documentos. En la parte superior de cada folio se imprimirán los epígrafes correspondientes.

Artículo 29. *Libro de nombramiento de expertos independientes y de auditores*

1. Los folios útiles del Libro de nombramiento de expertos independientes y de auditores estarán numerados correlativamente en el ángulo superior derecho.
2. Cada folio contendrá diversos espacios en blanco, separados por líneas verticales, en los que se consignará el nombre y los datos registrales de la sociedad o entidad, la fecha de la resolución de nombramiento, el nombre del experto o auditor designado, los datos de presentación de la instancia en el Libro Diario y los datos del legajo en que se archive la instancia. En la parte superior de cada folio se imprimirán los epígrafes correspondientes.

Artículo 30. *Índice*

Los Registradores llevarán obligatoriamente, por orden alfabético y mediante procedimientos informáticos, un índice del Registro, en el que se incorporará, al menos, la identificación del sujeto inscrito indicando, en su caso, la denominación social, el domicilio, tomo, folio de inscripción y el número de hoja, así como su número de identificación fiscal.

Artículo 31. *Inventario*

1. En cada Registro habrá un Inventario de todos los libros y carpetas o legajos que en él existan.

eskabidearen datuak, gordailuaren data eta agiriak zein paper-sorta edo karpetan jaso eta horren datuak. Folio bakoitzaren goialdean kasuan kasuko epigrafeak inprimatuko dira.

29. artikulua. *Aditu independenteen eta auditoreen izendapenari buruzko liburua*

1. Aditu independenteen eta auditoreen izendapenari buruzko liburuaren folio erabilgarriak hurrenez hurren zenbatuko dira goiko angeluan, eskuinaldean.
2. Folio bakoitzak hainbat zuriune izango ditu, lerro bertikalez bananduta, eta bertan ondokoa agerraraziko da: sozietate edo erakundearen izena eta erregistro-datuak, izendapena egiteko ebazpenaren data, izendatutako aditu edo auditorearen izena, liburu-egunkarian aurkeztutako eskaera-orriaren datuak eta eskaera-orria zein paper-sortatan artxibatu eta horren datuak. Folio bakoitzaren goialdean kasuan kasuko epigrafeak inprimatuko dira.

30. artikulua. *Aurkibidea*

Erregistratzaileek derrigor eraman behar dute Erregistroaren aurkibidea, hurrenkera alfabetikoaren arabera eta prozedura informatikoak erabilia; bertan, gutxienez, inskribaturiko subjektuaren identifikazioa jaso behar da, hala denean, ondokoa zehaztuz: sozietate-izendazioa, egoitza, inskripzioaren liburukia eta folioa, orriaren zenbakia, eta identifikazio fiskalerako zenbakia.

31. artikulua. *Inbentarioa*

1. Erregistro bakoitzean, bertako liburu eta karpeta edo paper-sorta guztien inbentarioa izan behar da.

2. Siempre que tome posesión un Registrador, se hará cargo del Registro conforme a dicho Inventario, que firmarán los funcionarios saliente y entrante, siendo responsable el primero de lo que apareciere en el mismo y no entregare.

3. Al comenzar cada año se completará o modificará el Inventario con lo que resulte del año anterior.

Artículo 32. Legajos

1. Los Registradores formarán por períodos, cuya duración fijarán según el movimiento de la oficina, los siguientes legajos:

a) Mandamientos judiciales, resoluciones administrativas y demás documentos en cuya virtud se haya practicado la inscripción, cuando no tengan matriz en protocolo notarial o en archivo público.

b) Certificaciones de traslado de domicilio y demás documentos procedentes de otros Registros Mercantiles o de la Propiedad.

c) Comunicaciones oficiales.

d) Instancias de legalización de libros y de nombramiento de expertos independientes y auditores.

e) Cualesquiera otros documentos o copias de los mismos cuyo archivo o depósito se establezca en disposiciones especiales o se juzgue conveniente por razones del servicio.

2. En los documentos que obren en los legajos correspondientes se estampará el sello de la Oficina y se hará referencia al asiento practicado.

3. Dentro de cada legajo se numerarán los documentos que contenga, por orden cronológico de despacho.

4. En el asiento practicado se expresará

2. Erregistratzailea karguaz jabetzen denean, Erregistroaz arduratuko da inbentario horren arabera, eta inbentarioa bi funtzionariok sinatuko dute, hartzen duenak eta uzten duenak; lehenengoak erantzun beharko du inbentarioan jasotako zerbait ematen ez badu.

3. Urte bakoitza hastean, inbentarioa osatu edo aldaraziko da, aurreko urteak ekarritakoarekin.

32. artikulua. Paper-sortak

1. Erregistratzaileek hurrengo paper-sortak egin behar dituzte epealdi desberdinetan, bulego bakoitzaren ibilbidearen arabera:

a) Manamendu judizialak, administrazio-ebazpenak eta inskripzioa egiteko erabili diren beste agiriak, horiek matrizerik ez dutenean notario-protokoloan edo artxibo publikoan.

b) Egoitza lekutik aldatzeko ziurtagiriak eta beste Merkataritzako Erregistro edo Jabetza Erregistro batzuetatik datozen agiriak.

c) Komunikazio ofizialak.

d) Liburuak legeztatu eta aditu independente nahiz auditoreak izendatzeko eskaera-orriak.

e) Beste edozein agiri edo horien kopia, xedapen bereziek ezarri dutenean horiek artxibatu edo gordailutu behar direla, edota zerbitzu-arrazoien ondorioz ulertzen denean hori egin behar dela.

2. Kasuan kasuko paper-sortetako agirietan bulegoaren zigilua jarriko da, eginiko idazkuna aipatuz.

3. Paper-sorta bakoitzaren barruan agiriak euren data-hurrenkeraren arabera zenbatuko dira.

4. Eginiko idazkunean paper-sorta

el legajo y el número que en él corresponde a cada uno de los documentos archivados.

5. Transcurridos seis años desde la fecha de su depósito o archivo, el Registrador podrá proceder al expurgo de los documentos contenidos en los legajos, salvo que por razón de su contenido estuviesen vigentes o se considerase oportuna su conservación.

CAPÍTULO III De los asientos

SECCIÓN PRIMERA De los asientos en general

Artículo 33. Asientos

1. En los libros del Registro se practicarán las siguientes clases de asientos: asientos de presentación, inscripciones, anotaciones preventivas, cancelaciones y notas marginales.

2. Los Registradores autorizarán con su firma los asientos y las notas al pie de título. No obstante podrán autorizar con media firma las inscripciones, anotaciones y cancelaciones concisas así como las notas y diligencias distintas de las mencionadas.

Tratándose de asientos de presentación, bastará con la firma de la diligencia de cierre, que implicará la conformidad con todos los extendidos durante el día.

Artículo 34. Expresión de cantidades

1. Las cantidades, fechas y números que hayan de contener los asientos podrán expresarse en guarismos, excepto aquéllos que se refieran a la determinación del capital social, número y valor de las cuotas y participaciones sociales, acciones y obligaciones e importe total de cada emisión, que se expresarán en letra.

2. En todo caso, en los asientos de presentación y notas marginales se podrán utilizar guarismos.

adieraziko da, baita artxibatutako agiri bakoitzari paper-sorta horren barruan dagokion zenbakia ere.

5. Agiriak gordailutu edo artxibatu zirenetik sei urte igaro direnean, erregistratzaileak paper-sortetako agiriak garbi ditzake, salbu eta, euren edukia kontuan hartuta, indarrean dirautenean edo agiriok gordetzea komeni dela ulertzen denean.

III. KAPITULUA Idazkunak

LEHENENGO ATALA Idazkunak orokorrean

33. artikulua. Idazkunak

1. Erregistroko liburuetan hurrengo idazkun-motak egingo dira: aurkezte-idazkunak, inskripzioak, aurreneurritzko idatzoharrak, ezerezteak eta bazter-oharrak.

2. Erregistratzaileek euren sinaduren bidez eskuetsiko dituzte idazkunak eta tituluaren oin-oharrak. Hala ere, sinadura erdiaren bidez eskuetsi ahal izango dituzte inskripzio, idatzohar eta ezerezte laburrak, bai eta bestelako ohar eta eginbideak ere.

Aurkezte-idazkunen kasuan, nahikoa izango da itxiera-eginbidea sinatzea, sinadura horrek baieztatuko baititu egun osoan zehar egindako idazkunak.

34. artikulua. Kopuruak adieraztea

1. Idazkunek jaso beharreko kopuru, data eta zenbakiak zifren bidez adieraz daitezke, sozietate-kapitalari buruzkoak edota sozietate-kuoten eta -partaidetzen, akzioen zein obligazioen kopuru nahiz balioari buruzkoak eta jaulkipen bakoitzaren zenbatekoari buruzkoak izan ezik, horiek letraz adieraziko direlako.

2. Edozein kasutan ere, aurkezte-idazkun zein bazter-oharretan zifrak erabil daitezke.

Artículo 35. Ordenación de los asientos

1. Las inscripciones y cancelaciones tendrán numeración correlativa y especial, que se consignará en guarismos.
2. Las anotaciones preventivas y sus cancelaciones se identificarán mediante letras, por orden alfabético.

Artículo 36. Redacción de asientos

1. Los asientos del Registro se redactarán en lengua castellana ajustados a los modelos oficiales aprobados y a las instrucciones impartidas por la Dirección General de los Registros y del Notariado.
2. Los conceptos de especial interés se destacarán mediante subrayado, tipo diferente de letra o empleo de tinta de distinto color.
3. Cuando en un asiento deban hacerse constar datos o circunstancias idénticos a los que aparezcan en otro asiento de la misma hoja registral, podrán omitirse haciendo referencia suficiente al practicado con anterioridad.
4. Los asientos se practicarán a continuación unos de otros, sin dejar espacio en blanco entre ellos.
5. Dentro de los asientos, las partes de líneas que no fueren escritas por entero se inutilizarán con una raya.

Artículo 37. Circunstancias generales de los asientos

1. Salvo disposición específica en contrario, toda inscripción, anotación preventiva o cancelación contendrá, necesariamente, las siguientes circunstancias:
 - 1.ª Acta de inscripción o declaración formal de quedar practicado el asiento, con expresión de la naturaleza del acto o contrato que se inscribe.

35. artikulua. Idazkunak antolatzea

1. Inskripzio eta ezerezteak hurrenez hurren eta modu berezian zenbatuko dira, zifrak erabilita.
2. Aurreneurritzko idatzoharrak eta horien ezerezteak letraz identifikatuko dira, hurrenkera alfabetikoaren arabera.

36. artikulua. Idazkunak idaztea

1. Erregistroko idazkunak gaztelaniaz idatziko dira, onetsitako eredu ofizialen arabera, eta Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideak kontuan izanda.
2. Interes berezia duten kontzeptuak azpimarraren bidez, letrakera aldatuta edo beste kolore bateko tinta erabilita nabarmenduko dira.
3. Idazkun batean erregistro-orri bereko beste idazkun batean agertzen diren datu edo inguruabar berberak agerrarazi behar direnean, horiek aipatu gabe utz daitezke, behar bezala adierazi bada aurretiaz egindakoa.
4. Idazkunak jarraian egingo dira, euren artean zuriunerik utzi gabe.

5. Idazkunen barruan oso-osorik idatzi ez diren lerroak marra baten bidez baliogabetuko dira.

37. artikulua. Idazkunen inguruabar orokorrak

1. Xedapen bereziak kontrakoa adierazi ezean, inskripzio, aurreneurritzko idatzohar edo ezerezte orok hurrengo inguruabarrak jaso behar ditu nahitaez:
 - 1) Inskripzio-akta edo idazkuna egin delako adierazpen formala, inskribatzen den egintza edo kontratuaren izaera zehaztuz.

2.^a Clase, lugar y fecha del documento o documentos, y los datos de su autorización, expedición o firma, con indicación, en su caso, del Notario que lo autorice o del Juez, Tribunal o funcionario que lo expida.

3.^a Día y hora de la presentación del documento, número del asiento, folio y tomo del Libro Diario.

4.^a Fecha del asiento y firma del Registrador.

2. Al margen del asiento de presentación se consignarán necesariamente los derechos devengados, la base tenida en cuenta para su cálculo y los números del Arancel aplicados:

Artículo 38. Constanza de la identidad

1. Cuando haya de hacerse constar en la inscripción la identidad de una persona física, se consignarán los siguientes datos:

1.º El nombre y apellidos.

2.º El estado civil.

3.º La mayoría de edad. Tratándose de menores de edad, se indicará su fecha de nacimiento y, en su caso, la condición de emancipado.

4.º La nacionalidad, cuando se trate de extranjeros.

5.º El domicilio, expresando la calle y número o el lugar de situación, la localidad y el municipio. Si estuviese fuera de poblado, bastará con indicar el término municipal y el nombre del lugar o cualquier otro dato de localización.

6.º Documento nacional de identidad. Tratándose de extranjeros, se expresará el número de identificación de extranjeros, el de su pasaporte, el de su tarjeta de residencia o de cualquier otro documento legal de identificación, con declaración de estar vigentes.

2) Agiriaren edo agirien mota, tokia eta data, baita horien eskuespen-, emate- edo sinadura-datuak ere, hala denean, zein notariok eskuetsi dituen edo zein epaile, auzitegi nahiz funtzionarioek eman dituen zehaztuz.

3) Agiria aurkezteko eguna eta ordua, eta idazkunaren, folioaren nahiz liburu-egunkariko liburukiaren zenbakia.

4) Idazkunaren data eta erregistratzailearen sinadura.

2. Aurkezte-idazkunaren bazterrean sortutako eskubideak agerrarazi behar dira, baita horiek kalkulatzeko erabili den oinarria eta aplikatutako arantzelaren zenbakiak ere.

38. artikulua. Identitatea agerraraztea

1. Inskripzioan pertsona fisikoaren identitatea agerrarazi behar denean, hurrengo datuak jasoko dira:

1) Izen-abizenak.

2) Egoera zibila.

3) Adin nagusitasuna. Adingabekoen kasuan, horien jaiotze-data, eta, hala denean, emantzipatu-izaera adierazi behar dira.

4) Atzerritarren kasuan, naziotasuna.

5) Egoitza, kalea eta zenbakia edo kokapen-tokia, herria eta udalerrria adierazita. Herritik at egonez gero, nahikoa izango da udal-mugartea eta tokiaren izena edo toki hori kokatzeko beste edozein datu aipatzea.

6) Nortasun-agiri nazionala. Atzerritarren kasuan, halakoak identifikatzeko zenbakia adieraziko da, edota pasaportearen nahiz egoiliar- txartelaren zenbakia, baita identifikaziorako beste edozein lege-agiriren zenbakia ere, horiek indarrean daudelako

Igualmente se consignará el número de identificación fiscal, cuando se trate de personas que dispongan del mismo con arreglo a la normativa tributaria.

2. Tratándose de personas jurídicas se indicará:

- 1.º La razón social o denominación.
- 2.º Los datos de identificación registral.
- 3.º La nacionalidad, si fuesen extranjeras.
- 4.º El domicilio, en los términos expresados en el número 5.º del apartado anterior.
- 5.º El número de identificación fiscal, cuando se trate de entidades que deban disponer del mismo con arreglo a la normativa tributaria.

3. Cuando haya de hacerse constar en la inscripción el domicilio de una persona, física o jurídica, se expresarán los datos a que se refiere el número 5 del apartado primero de este artículo.

Artículo 39. *Plazo para la práctica de los asientos*

1. Las inscripciones se practicarán, si no mediaren defectos, dentro de los quince días siguientes al de la fecha del asiento de presentación o, en su caso, al de la fecha de devolución del documento retirado. Si concurriese justa causa, el plazo será de treinta días.

En todo caso, la inscripción habrá de efectuarse dentro del plazo de vigencia del asiento de presentación, sin perjuicio de la responsabilidad en que incurra el Registrador por la infracción de lo dispuesto en el párrafo anterior.

Si el título adoleciera de defectos subsanables, el plazo se contará desde que se hubiesen aportado los

adierazpenarekin batera.

Halaber, identifikazio fiskaleko zenbakia agerraraziko da, tributu-arautegiaren arabera halakoa dutenen kasuan.

2. Pertsona juridikoei dagokienez, hurrengo adierazi behar da:

- 1) Sozietate-izendazioa.
- 2) Erregistroko identifikazio-datuak.
- 3) Naziotasuna, atzerritarra izanez gero.
- 4) Egoitza, aurreko paragrafoaren 5. idatz-zatian zehaztutakoaren arabera.

5) Identifikazio fiskaleko zenbakia, tributu-arautegiaren arabera halakoa izan behar duten erakundeen kasuan.

3. Pertsona fisiko zein juridikoaren egoitza agerrarazi behar denean inskripzioan, artikuluko honen lehenengo paragrafoko 5. idatz-zatiak aipatu datuak adieraziko dira.

39. artikulua. *Idazkunak egiteko epea*

1. Akatsik izan ezean, inskripzioak hamabost eguneko epean gauzatuko dira, aurkezte-idazkuna egin denetik zenbatzen hasita, edo, bestela, eramandako agiria itzultzen denetik. Arrazoi zuzena badago, epea hogeita hamar eguneko izango da.

Edozein kasutan ere, inskripzioa egin behar da aurkezte-idazkunaren indarraldiaren barruan, aurreko paragrafoan xedatutakoa hausteagatik erregistratzaileak izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Tituluak dituen ongitzeko moduko akatsak, epe hori zenbatuko da ongitzea burutzeko agiriak ekarri direnetik,

documentos que la subsanación exija, siempre que esté vigente el asiento de presentación. La aportación de tales documentos se hará constar por nota marginal.

2. Si los documentos subsanatorios se presentaren o los retirados se devolvieren dentro de los últimos quince días de vigencia del asiento de presentación, éste se entenderá prorrogado por un período igual al que falte para completar los quince días.

3. Si se hubiere interpuesto recurso gubernativo, el plazo empezará a contarse desde la fecha en que se notifique al Registrador la oportuna resolución o, en su caso, desde la fecha en que aquél adopte la decisión de reforma.

Artículo 40. Reconstrucción del Registro y rectificación de errores

1. Cuando a consecuencia de incendio, inundación o cualquier otro siniestro quedasen destruidos en todo o en parte alguno de los Libros del Registro, o cuando se hiciera extraordinariamente difícil la consulta por el deterioro de los folios que los integran, se procederá de acuerdo con las siguientes reglas:

1.ª El Registrador, con intervención de un miembro de la Junta de Gobierno del Colegio de Registradores o del Presidente territorial correspondiente, levantará un acta en la que harán constar los Libros destruidos o los folios deteriorados, y procederá a la apertura de un expediente numerado para cada uno de los sujetos inscritos, en el que se reflejarán todas las incidencias del procedimiento de reconstrucción.

2.ª El Registrador hará constar la apertura del expediente por nota al margen del último asiento practicado en la hoja registral que se trate de

aurkezte-idazkuna indarrean badago. Bazter-oharraren bidez agerraraziko da agiriok ekarri direla.

2. Aurkezte-idazkunaren indarraldiaren azken hamabost egunen barruan aurkezten badira ongitze-agiriak edo itzultzen badira eraman direnak, ulertuko da epe hori amaitzeko zenbat egun geratu, eta beste horrenbeste luzatzen dela idazkuna, hamabost egun bete arte.

3. Gobernu-errekurtsoa jarri bada, kasuan kasuko ebazpena erregistratzaileari noiz jakinarazi, eta data horretatik hasiko da zenbatzen epea, edo, hala denean, hark eraldaketa-erabakia hartzen duenetik.

40. artikulua. Erregistroa berregin eta okerrak zuzentzea

1. Sute, uholde zein bestelako ezbehar baten ondorioz Erregistroko libururen bat oso-osorik nahiz zati batez suntsitu denean, edota liburua kontsultatzea oso zail bihurtzen denean horren folioak narriatuta egoteagatik, hurrengo erregelak aplikatuko dira:

1) Erregistratzaileen Elkargoko Gobernu Batzaren kide batek edo kasuan kasuko lurralde-presidenteak esku hartuta, erregistratzaileak akta egingo du suntsitutako liburuak edo narriaturiko folioak aipatuz, eta zenbakidun espedientea irekiko du subjektu inskribatu bakoitzeko; espediente horretan berregite-prozeduraren gorabehera guztiak jasoko dira.

2) Erregistratzaileak espedientea ireki dela agerraraziko du, berregin nahi den erregistro-orriko azken idazkunaren bazterrean oharra jarrita; halaber,

reconstruir y notificará el inicio del procedimiento a la Dirección General de los Registros y del Notariado y a cada uno de los sujetos inscritos afectados.

Si la hoja registral hubiese quedado destruida en su totalidad y no fuera posible extender la referida nota marginal se hará constar esta circunstancia en el expediente.

3.^a En la notificación se requerirá al sujeto inscrito la nueva presentación de los títulos que en su momento hubieran provocado la práctica de los asientos destruidos o deteriorados y contengan al de la nota de haber sido inscritos. En defecto de los títulos originariamente inscritos podrá aportarse segunda o ulterior copia de los mismos cuando pudiera tenerse constancia de la previa inscripción de los mismos a través del «Boletín Oficial del Registro Mercantil» o de los índices informatizados del Registro.

4.^a A medida que se vayan presentando los títulos correspondientes a los asientos que se trate de reconstruir, el Registrador procederá a su reinscripción a continuación del último asiento practicado en la hoja abierta al sujeto inscrito, asignará a cada uno de los nuevos asientos practicados el número de orden que anteriormente le hubiese correspondido y hará constar en el acta de inscripción y en la nota al pie del título una referencia al número de expediente de reconstrucción de que se trate.

5.^a Una vez practicados todos los asientos comprendidos en el expediente, el Registrador extenderá la correspondiente diligencia de cierre, que notificará a la Dirección General de los Registros y al sujeto inscrito. De la misma forma se procederá cuando hayan transcurrido seis meses desde la

prozedura ireki dela jakinaraziko die Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiari eta inskribatutako subjektu ukitu bakoitzari.

Erregistro-orria oso-osorik suntsitzeagatik ezin bada bazter-ohar hori egin, espedientean inguruabar hori agerraraziko da.

3) Jakinarazpenean subjektu inskribatuari aginduko zaio suntsitu edo narriaturiko idazkunak egiteko erabili ziren tituluak berriz aurkeztea, tituluok inskripzioaren inguruko oharra badute. Jatorrian inskribaturiko agiriak izan ezean, horien bigarren edo geroko kopia ekar daiteke, jakin daitekeenean horiek aurretiaz inskribatu direla, «Merkataritzako Erregistroaren Aldizkari Ofizial»era edo Erregistroko aurkibide informatizatuetara jota.

4) Berregin nahi diren idazkunei buruzko tituluak aurkeztu ahala, subjektu inskribatuari irekitako orriaren azken idazkunaren ostean berrinskribatuko ditu erregistratzaileak; halaber, erregistratzaile horrek idazkun berri bakoitzari lehengo zenbakia jarriko dio, eta inskripzio-aktan nahiz tituluaren oin-oharrean kasuan kasuko berregite-espedientearen zenbakia agerraraziko du.

5) Espedientearen jasotako idazkun guztiak egin eta gero, erregistratzaileak itxiera-eginbidea gauzatuko du, eta hori Erregistroen Zuzendaritza Nagusiari eta subjektu inskribatuari jakinaraziko die. Edu berean jardungo da, sei hilabete igaro direnean subjektu inskribatuari prozedura hasi dela jakinarazi zaionetik

notificación al sujeto inscrito del inicio del procedimiento y no se hubieran presentado los títulos a que se refiere la regla 3ª. En este caso la reconstrucción del Registro se someterá a las reglas generales establecidas en la legislación hipotecaria.

6.ª El expediente quedará archivado en el Registro durante seis años, a contar desde la fecha de la diligencia de cierre.

2. La rectificación de errores en los asientos se realizará por los procedimientos y con los requisitos establecidos en la legislación hipotecaria.

SECCIÓN II *Del asiento de presentación*

Artículo 41. *Diligencia de apertura*

Cada día, antes de extenderse el primer asiento de presentación, y a continuación de la diligencia de cierre del último día hábil, se extenderá la oportuna diligencia de apertura, expresando la fecha que corresponda.

Artículo 42. *Contenido del asiento*

1. Al ingresar cualquier documento que pueda provocar alguna operación registral, se extenderá en el Diario correspondiente el oportuno asiento de presentación.

De las solicitudes privadas de expedición de certificaciones no se extenderá asiento de presentación, salvo las presentadas a efectos de lo dispuesto en el artículo 19 de este Reglamento.

2. Extendido el asiento de presentación, se hará constar por nota en el documento el día y la hora de la presentación, y el número y tomo del Diario.

Artículo 43. *Vigencia del asiento*

La vigencia del asiento de presentación

eta ez badira aurkeztu 3. erregelak aipatu tituluak. Kasu horretan, Erregistroa berregiteko hipoteka-legeriak ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira.

6) Espedientea sei urtetan artxibatuko da Erregistroan, itxiera-eginbidearen datatik zenbatzen hasita.

2. Idazkunetako okerrak zuzentzeko, hipoteka-legeriak ezarritako prozedura eta betekizunak izan behar dira kontuan.

II. ATALA *Aurkezte-idazkuna*

41. artikulua. *Irekiera-eginbidea*

Egunean-egunean, lehenengo aurkezte-idazkuna egin baino lehen, azken egun balioduna ixteko eginbidearen ostean, kasuan kasuko irekiera-eginbidea jarriko da, data adierazita.

42. artikulua. *Idazkunaren edukia*

1. Erregistro-eragiketaren bat eragin dezakeen agiria sartuz gero, liburu-egunkari egokian egin behar da kasuan kasuko aurkezte-idazkuna.

Ziurtagiriak egiteko eskabide pribatuen kasuan, ez da aurkezte-idazkunik egingo, salbu eta ziurtagiriok aurkezten direnean erregelamendu honetako 19. artikulua xedatutakoaren ondoretarako.

2. Aurkezte-idazkuna egindakoan, aurkezpenaren eguna eta ordua agerrarazi behar dira, bai eta liburu-egunkariaren zenbakia eta liburukia ere, ohar egokiaren bidez

43. artikulua. *Idazkunaren indarraldia*

Aurkezte-idazkunak bi hilabeteko

será de dos meses a contar desde la fecha en que se haya practicado. El asiento de presentación de las cuentas anuales, regulado en el artículo 367, tendrá una vigencia de cinco meses.

Artículo 44. *Tiempo de presentación*

Los Registradores sólo admitirán la presentación de documentos durante las horas de apertura al público del Registro. No obstante, podrán ejecutar fuera de ellas las demás operaciones de su cargo.

Artículo 45. *Sujeto de la presentación*

1. Quien presente un documento inscribible en el Registro Mercantil será considerado representante de quien tenga la facultad o el deber de solicitar la inscripción.

2. La misma regla se aplicará a la presentación de solicitudes firmadas por persona legitimada que tengan por objeto la práctica de cualquier otra operación registral.

Artículo 46. *Presentación en Registro distinto*

Si concurren razones de urgencia o necesidad, cualquiera de los otorgantes podrá solicitar del Registro Mercantil o de la Propiedad del distrito en que se haya otorgado el documento, que se remitan al Registro Mercantil competente, por medio de telecopia o procedimiento similar, los datos necesarios para la práctica en éste del correspondiente asiento de presentación.

Artículo 47. *Operaciones del Registro de origen*

1. El Registrador a quien se solicite la actuación a que se refiere el artículo anterior, después de calificar el carácter de presentable del documento, extenderá en el Diario un asiento de

indarraldia du, bera egin denetik zenbatzen hasita. Urteko kontuen aurkezte-idazkunak, 367. artikuluan araututakoak, bost hilabeteko indarraldia izango du.

44. artikulua. *Noiz aurkeztu*

Erregistratzaileek onartuko dituzte Erregistroa jendearentzat zabalik dagoen bitartean aurkezturiko agiriak bakarrik. Karguaren beste eginkizunak, berriz, ordu horietatik at gauza ditzakete.

45. artikulua. *Nork aurkeztu*

1. Ulertuko da Merkataritzako Erregistroan inskribatu beharreko agiria aurkezten duen pertsona dela inskripzioa eskatzeko ahalmena edo eginbeharra duenaren ordezkaria dela.

2. Erregela berbera aplikatuko da legitimazioa duten pertsonen sinaturiko eskabideak aurkezten direnean, erregistro-eragiketetatik beste edozein egiteko.

46. artikulua. *Beste Erregistro batean aurkeztea*

Presara edo beharrezana izanez gero, agiria zein barrutitan eman eta edozein egilelek eska diezaioke barruti horretako Merkataritza edo Jabetza Erregistroari, telekopia bidez edo antzeko prozeduraren bidez, Erregistro eskudunari bidal diezazkion bertan aurkezte-idazkun egokia egiteko behar diren datu guztiak.

47. artikulua. *Eragiketak, jatorrizko Erregistroan*

1. Aurreko artikulua aipatu jarduna zein erregistratzaileari eskatu, eta horrek agiria aurkezteko modukoa dela kalifikatu eta gero, igorpen-idazkuna egingo du liburu-egunkarian, horri

remisión, dándole el número que corresponda, y seguidamente remitirá al Registro competente, por medio de telecopia o procedimiento análogo, todos los datos necesarios para practicar el asiento de presentación, agregando además los que justifiquen la competencia del Registro de destino, el número que le haya correspondido en su Diario y su sello y firma.

2. Seguidamente extenderá nota al pie del documento, haciendo constar las operaciones realizadas así como la confirmación de la recepción dada por el Registro de destino, y lo devolverá al interesado para su presentación en el Registro competente, advirtiéndole que de no hacerlo en plazo de diez días hábiles caducará el asiento.

3. El acuse de recibo, que deberá hacerse igualmente mediante telecopia o procedimiento similar, se consignará por medio de nota marginal en el Diario y se archivará en el legajo correspondiente.

Artículo 48. Operaciones del Registro de destino

1. El Registrador que reciba la comunicación del Registro de origen, previa calificación de su competencia y confirmación de la recepción, extenderá el asiento de presentación solicitado al final del día, inmediatamente antes de la diligencia de cierre. Si fueren varias las telecopias, los asientos se practicarán por el orden de su recepción.

2. Dentro del plazo a que se refiere el apartado segundo del artículo anterior, el interesado deberá presentar el documento original con la nota antes indicada, haciéndose constar dicha presentación por nota marginal, a partir de cuya fecha correrán los plazos de

kasuan kasuko zenbakia emanaz, eta, jarraian, telekopia edo antzeko baliabidea erabilita, aurkezte-idazkuna egiteko behar diren datu guztiak bidaliko dizkio Erregistro eskudunari, Erregistro jasotzailearen eskumena egiaztatzeko datuekin, egunkarian idazkunari dagokion zenbakiarekin, zigilu eta sina durarekin batera.

2. Jarraian, oharra egingo du agiriaren oinean, gauzatutako eragiketak eta Erregistro jasotzaileak emandako jasotze-baieztapena agerraraziz, eta agiria interesdunari itzuliko dio, horrek Erregistro eskudunearan aurkez dezan, eta, hamar egun balioduneko epean aurkezten ez badu, idazkuna iraungiko dela ohartaraziko du.

3. Modu berean, hartu izanaren adierazpena egin behar da telekopiaren edo antzeko prozeduraren bidez; hori liburu-egunkarian agerraraziko da bazter-oharraren bidez, eta kasuan kasuko paper-sortan artxibatuko da.

48. artikulua. Eragiketak, Erregistro jasotzailean

1. Komunikazioa jatorrizko Erregistrotik hartu duen erregistratzaileak, bere eskumena kalifikatu eta hartu izana baieztatu ondoren, egingo du eskatutako aurkezte-idazkuna eguna amaitzean, itxiera-eginbidea egin baino lehen. Telekopia bat baino gehiago izanez gero, jasotze-hurrenkeraren arabera egingo dira idazkunak.

2. Aurreko artikulua bigarren paragrafoak aipatu epean, interesdunak jatorrizko agiria aurkeztu behar du lehen zehaztutako oharrarekin batera, aurkezpen hori bazter-oharraren bidez agerraraziz; kalifikazioa eta idatzagiriak egiteko epeak data horrez geroztik

calificación y despacho.

Artículo 49. *Diferencias de tiempo hábil*

En el supuesto de que los Registros de origen y destino tuviesen distinto horario de apertura y cierre del Diario, sólo se podrán practicar las operaciones a que se refieren los artículos anteriores durante las horas que sean comunes. Igual criterio se aplicará respecto a días hábiles.

Artículo 50. *Títulos no susceptibles de presentación*

Los Registradores no extenderán asientos de presentación de los documentos que, por su forma o contenido, no puedan provocar operación registral, o no correspondan a la circunscripción de su Registro.

Artículo 51. *Unidad de asiento de presentación*

1. No se extenderá más que un asiento de presentación aunque la documentación conste de varias piezas, o en su virtud deban hacerse diferentes inscripciones u operaciones registrales.

2. No será necesario reseñar los documentos complementarios en los asientos de presentación, salvo que lo pida el presentante.

Artículo 52. *Títulos enviados por correo*

1. El Registrador no estará obligado a extender asiento de presentación de los títulos que reciba por correo o procedimiento análogo, excepto cuando estén remitidos en actuación de lo previsto en el artículo 46 o por autoridades judiciales o administrativas. No obstante, podrá extender el asiento. En caso contrario habrá de devolver el documento.

2. En caso de practicarse el asiento de presentación, el Registrador lo

hasiko dira zenbatzen.

49. artikulua. *Denbora balioduna desberdina izatea*

Jatorrizko Erregistroak eta jasotzaileak liburu-egunkaria ireki eta ixteko ordu desberdinak izanez gero, aurreko artikuluek aipatu eragiketak egin daitezke bi-biak zabalik dauden orduetan bakarrik. Egun baliodunei dagokienez, irizpide berbera aplikatuko da.

